

MUXIKA » INGURUMENA

## SOS Muxika elkarteak Inamak isurketak egin dituela salatu du

Eusko Jaurlaritzak neurri zuzentzaileak hartzeko enpresari emandako epea datorren asteko barikuan bukatuko da

### DANEL LAUZIRIKA

SOS Muxika herritarren plataformak joan den martitzenean Inama enpresan isurketa bat izan zela salatu du. Taldeak esan du isurketa horrek San Roman auzoko etxeei zuzenean eragin ziela.

Isuritakoa egur zatitxoak izan ziren. San Roman auzoko bizilagun batek isurketaz oharrarazi ondoren, Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko teknikari bat bertara azaldu zen eta egoera aztertu zuen. Busturialdeaz arduratzen den osasun teknikariak gertatutakoaren inguruko informea egiteko datuak bildu zituen.

SOS Muxikako ordezkarien esanetan, «ez da isurketa bat gertatu den lehen aldia. Apirilaren 10ean egur zatitxoek isurketa garrantzitsua izan zen Astelarran».

«Isurketak txikiagoak direnean Astelarrari eragiten diote gehienbat, baina garrantzitsuagoak direnean Zabale eta San Roman aldea kutsatzen dute», esan du Itziar Lopategi SOS Muxikako idazkariak.

Finsa-Inamako arduradunek esan dutenez, aldiz, martitzenean arazorik gabe lan egin zuten. Eta «isurketa horri buruz ez dakigu ezer», adierazi dute. Enpresa abuztuaren 7tik irailaren 5era arte, isurketa egunera arte, oporrak zirela-eta itxita egon da.

Finsa-Inamak kanporatzen dituen keak muxikarrei arnasa hartzeko zailtasuna eragiten diela salatu du Lopategik. «Orain dela gutxi arnasa hartzeko zailtasunak eraginda Muxikako bizilagun bi Galdakaoko erietxera eraman behar izan zituzten».

### Epearen bukaera

Martxoan Eusko Jaurlaritzak neurri zuzentzaileak betetzeko sei hilabeteko epea eman zion enpresari. Epea gaur zortzi bukatuko da.

Inamak ingurumen teknikariek adierazitako neurri zuzentzaileak betetzen ez baditu, Ingurumen sailak Muxikako instalazioen handitzea eragotziko duela adierazi du Jaurlaritzak behin baino gehiagotan. Ingurumen sailak martxoan espedientea ere ireki zion enpresa-ri.

SOS Muxikaren arabera, «neurriak betetzeko epearen inguruan ez dakigu ezer. Ez dugu aldaketarik igarri. Elektrofiltrorik ez dute jarri».

«Inamak Jauregibarri inguruan baimenik gabeko egindako biltegiaren aurka udaletxean jarri genuen salaketak ez du erantzunik jaso», adierazi dute SOS Muxikako kideek.